

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2011n Nafarroako Gobernuak irakasleentzako 300 prestakuntza-ekintza antolatu zituen, 8.937 parte-hartzailerekin

Nabarmentzekoak dira atzerriko hizkuntzen langileentzako arreta, kalitatezko sareak, Lanbide Heziketako ikastaroak eta on-line bidezko jardunaldiak edo prestakuntza

Miércoles, 04 de enero de 2012

2011n Nafarroako Gobernuak irakasleentzako 300 prestakuntza-ekintza antolatu ditu, Hezkuntza Departamentuak aurkeztutako Prestakuntza Planaren barnean eta, guztira, bertaratze eta partaidetzako 8.937 ziurtagiri eman ditu.

Ahalegin nagusiak funtzio publikoan sartu berri diren irakasleei arreta emateko bideratuta daude, gehiengo atzerriko hizkuntzen irakasleak direnak. Arlo honetan, hain zuzen, garatzen ari da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ingelesaren irakaskuntza hobetzeko Plana; haren arabera, 20 ikastetxe eleaniztun baino gehiagok ikastetxe horietan, maila eta zeregin berrietan sartutako irakasle berriak prestatzen dituzte.

Egin diren beste jarduera-ildo batzuk kalitatezko sareak dira; haietan Nafarroako 100 ikastetxetik gora parte hartzen dute. Kalitate-sare horiek hezkuntza-eredu guztietako irakasle-kopuru handi bat prestatzen eta haien lana bultzatzen laguntzen dute. Lan hori [iragan abenduaren 21ean aitortu zen Nafarroako Jauregian egindako ekitaldi batean](#). Gainera, ikastetxeetako bizikidetzak klima etengabe hobetzeko jarduerak nabarmentzen dira. Haietan 20 klaustrak baino gehiagok parte hartzen du, maila partikularrean hainbat irakasleekin batera.

Lanbide Heziketako ikastaro espezifikoak prestakuntza jarraituaren beste sektore bat dira, irakurmena, eskoletako liburutegiak edo teknologia berriak bezalako beste alderdi batzuk ahaztu gabe Integratic proiektuaren barnean; proiektu honetan Lehen Hezkuntzako ikastetxeek laguntzen eta parte hartzen dute.

Prestakuntzako modalitateen barnean, on-line prestakuntzak garrantzi berezia du; prestakuntza horretan 2.000 irakasle parte hartzen ari dira informazio eta komunikazioko teknologien eguneratze eta berrikuntzan. Gainera, ikastetxeetan egiten den prestakuntza garatzen da, eta bertan hainbat gaitako 150 lan-talde baino gehiago eratu da, irakasleak Laguntzeko Zentroetako (ILZ) aholkularien tutoretzapean.

Mila pertsonatik gora jardunaldi eta kongresuetan

Bestalde, hezkuntza-paradigma berriei buruzko jardunaldietan 327 irakasle izan ziren eta ondorengo hizlariak hartu zuten parte: Carles

Parellada, Inmaculada Serrano, Ramón Flecha eta Javier Bahón-ek. Azken honek adimen anitzen gaia jorratu zuen, eta gai hori izan zen, baita ere, Sor Monserrat del Pozo-k 600 irakasleri eta 200 gurasori emandako hitzaldien ardatz nagusia.

Halaber, autonomia, hezkuntza-lidergoa eta eskolako arrakastari buruzko kongresua azpimarratu behar da. Maila eta hizkuntz eredu guztietako ikastetxe publikoetako 160 zuzendaritza-taldetik gora parte hartu zuten bertan.